Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administratiboa

Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Lehendakaria / Presidente
**Mikel Ulazia Etxabe**

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
**Nekane Orbegozo Zurutuza**

**Resolución 9/2025 ebazpena**
Recursos 8/2025-251/2025 errekurtsoak

Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuko foru diputatuaren ekainaren 12ko 164-C/2025 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez erabaki zen FHECOR INGENIEROS CONSULTORES SA eta SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL enpresek eratu beharreko ABEEri esleitzea Bazkardon (Andoain) A-15etik N-Iera zuzenean lotzeko begiztaren proiektua idazteko zerbitzu kontratua (gakoa: 2-NC-12/2025-AT, jarritako kontratazio arloko errekurtso berezietan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En los recursos especiales contra la Orden Foral 164-C/2025, de 12 de junio de 2025, por la que el diputado foral del Departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial resolvió adjudicar el contrato de servicios para la Redacción del proyecto de lazo para conexión directa desde la A-15 a la N-I en Bazkardo (Andoain) (clave: 2-NC-12/2025-AT) a la UTE a constituir por las empresas FHECOR INGENIEROS CONSULTORES SA y SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGO.-** 2025eko uztailaren 4 eta 7 bitarte Auzitegi honen erregistro elektronikoan aurkeztutako idatzien bidez, 244 kontratazio arloko errekurtso berezi jarri ziren ebazpen honen hasieran aipatutako foru aginduaren aurka. Errekurtso horiek 8/2025 zenbakitik 251/2025 zenbakira erregistratu ziren.

**BIGARREN.-** Uztailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Auzitegi honek errekurtsoak metatzea eta guztiak prozedura bakar batean izapidetu eta ebazpen bakar baten bidez ebatziko zirela erabaki zuen.

**HIRUGARREN.** – Uztailaren 29an, kontratazio-espedientea eta errekurtsoari buruzko

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escritos presentados en el registro electrónico de este Tribunal entre los días 4 y 7 de julio de 2025, se interpusieron 244 recursos especiales en materia de contratación contra la orden foral citada en el encabezamiento de esta resolución; los recursos quedaron registrados con los números 8/2025 a 251/2025.

**SEGUNDO.-** Mediante Resolución de 18 de julio este Tribunal acordó la acumulación de los recursos disponiendo que serían tramitados en un único procedimiento y resueltos mediante una sola resolución.

**TERCERO. -** El 29 de julio se recibió en el Tribunal el expediente de contratación y el informe

departamentuaren txostena jaso ziren Auzitegian, errekurtsoa tramitera onartzearen aurka agertuz errekurtsogileen legitimazio faltagatik, lizitazio prozeduran inongo interesik ez zutela argudiatuz.

del departamento acerca del recurso, oponiéndose a su admisión a trámite por falta de legitimación de las personas recurrentes, al carecer estas de interés alguno en el procedimiento de licitación.

**LAUGARREN. -** Kontuan harturik errekurtso hori adjudikazio egintzaren aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen tramitazioa etenda geratu da, SPKLren 53. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

**CUARTO. -** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

**BOSGARREN. -** Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duen irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitakoa betez, Imanol Zubizarreta Arteche auzitegi honetako presidenteak jakinarazi du ez duela parte hartuko errekurtso honen azterketan, eztabaidan eta bozketan, kontratuaren adjudikazioa proposatu duen kontratazio-mahaiko idazkaria izan baita. Auzitegiak abstentzio hori onartu egin du.

**QUINTO. -** En cumplimiento de lo previsto en el artículo 5 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, el presidente de este Tribunal Imanol Zubizarreta Arteche ha comunicado su obligación de abstenerse de intervenir en el estudio, deliberación y votación de este recurso, debido a que ha sido secretario de la mesa de contratación que ha propuesto la adjudicación del contrato. Abstención que ha sido aceptada por el Tribunal.

**SEIGARREN.-** Ez zaie errekurtsoa helarazi balizko interesdunei, ebazpenean ez baitira kontuan hartu errekurtsogileek azaldutako egitateak eta alegazioak baino, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, SPKLren 56. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikagarria dena.

**SEXTO.-** No se ha dado traslado del recurso a posibles interesados al no ser tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones que las aducidas por las recurrentes, de conformidad con lo establecido en el artículo 82.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, aplicable en virtud de lo establecido en el artículo 56 de la LCSP.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

**LEHENENGOA. - Xedea.**

**PRIMERO. - Objeto.**

Errekurtsogileek honakoa eskatzen dute beren errekurtso idatzian: batetik, FHECOR INGENIEROS CONSULTORES SA eta SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL enpresek eratu beharreko ABEEri egindako kontratu

Las recurrentes solicitan en su escrito de recurso, por un lado, la anulación de la adjudicación realizada a la UTE a constituir por las empresas FHECOR INGENIEROS CONSULTORES SA y SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL,

esleipena ezeztatzea eta bestetik, *Andoainen, N-l eta A-15 errepideen arteko lotura-zatiaren sahiesbidearen konponbidearen alde egitea.* Bigarren eskaera hori kontratazio-arloko errekurtso berezi baten xedetik kanpo geratzen da.

y por otro, que la administración foral "*apueste por la solución de variante del tramo de conexión de la N1 y la A-15",* petición que queda fuera del objeto de un recurso especial en materia de contratación.

Esleipenaren aurkako erekurtsoari dagokionez, errekurtsoa zerbitzu kontratu baten esleipenaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 383.105,39 euro da.

Respecto al recurso contra la adjudicación, este se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 383.105,39 euros.

Beraz, errekurritutako egintzari kontratazio arloko errekurtso berezia jar dakioke, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikuluak, 1 a) eta 2 c) apartatuetan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 44 LCSP.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

**SEGUNDO.- Competencia**.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**HIRUGARRENA. - Epea.**

**TERCERO. - Plazo.**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliodunеko epean jarri da, kontuan hartuta adjudikazioari buruzko Foru Agindua 2025eko ekainaren 16an argitaratu zela kontratatzailearen profilean.

El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.d) LCSP, si se tiene en cuenta que la Orden Foral de adjudicación fue publicada en el perfil de contratante el 16 de junio de 2025.

**LAUGARRENA. - Legitimazioa.**

**CUARTO. - Legitimación.**

Aztertu behar da ea errekurtsogileak legitimatuta dauden errekurtsoa jartzeko, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Procede examinar si las personas recurrentes están legitimadas para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP.

Artikulu horrek, lehen atalean ezartzen duenez, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango du edozein pertsona fisiko edo juridikok, baldin eta haren eskubide edo interes legitimo indibidual edo kolektiboak kaltetu badira edo errekurtsoaren xede diren erabakiek zuzenean edo zeharka eragin badiezaiekete.

El citado artículo, en su apartado primero, establece que *"podrá interponer el recurso especial en materia de contratación cualquier persona física o jurídica cuyos derechos o intereses legítimos, individuales o colectivos, se hayan visto perjudicados o puedan resultar afectados, de manera directa o indirecta, por las decisiones objeto del recurso".*

Bigarren paragrafoak, bere aldetik, legitimazioa aitortzen die enpresaburuen elkarteei eta sindikatuei, muga jakin batzuen mende, eta, nolanahi ere, kasu honetan, errekurtsoa jarri duten pertsonak ikusirik, ez da aplikagarria.

El apartado segundo, por su parte, reconoce legitimación a las asociaciones empresariales y a los sindicatos, sometido a ciertos límites que, en cualquier caso, a la vista de las personas recurrentes en el presente caso no resulta de aplicación.

Beraz, aztertu behar da ea errekurtsogileek, lizitatu ez dutenek eta lizitatzeko asmorik erakutsi ez dutenek, interes legitimoren bat duten esleipen-egintzaren aurka egiteko.

Por lo tanto, corresponde analizar si las personas recurrentes, que no han licitado ni han mostrado propósito en hacerlo, cuentan con algún interés legítimo en su pretensión para impugnar el acto de adjudicación.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazi izan du interes legitimoa abantaila edo onura bat lortzean edo kalte zehatz eta ziurra saihestean agertzen dela, baliatu nahi diren uziak baiestearen ondorioz.

La jurisprudencia el Tribunal Supremo ha venido señalando que el interés legítimo se manifiesta en la obtención de una ventaja o beneficio o en la evitación de un perjuicio concreto y cierto como resultado de la estimación de las pretensiones que se quieren hacer valer.

Eta, zehazkiago, Auzitegi Gorenaren abenduaren 15eko 4339/2020 Epaian, 666/2019 errekurtso argi eta garbi adierazten du kontratazioaren arloan ez dagoela akzio publikorik, (…) *Egia esan, ekintza publikoa salbuespena da ordenamendu juridiko-administratiboan: legegileak ekintza egon dadila espresuki nahi izan duenean baino ez da existitzen, eta hori ez da sektore publikoko kontratuen kasua.* ***Legezkotasuna defendatze hutsa, beraz, ez da nahikoa administrazio-prozeduran interesduntzat jotzeko hala nahi duena****, eta, are gutxiago, administrazioarekiko auzien prozesuan legitimazioa emateko.*

Y más concretamente en la STS 4339/2020, de 15 de diciembre (rec. 666/2019), afirma claramente que "e***n materia de contratación no existe acción pública*** *y los de concesión son una modalidad de contratos administrativos. En realidad, la acción pública es una excepción en el ordenamiento jurídico-administrativo: solamente existe en aquellos supuestos en que el legislador expresamente ha querido que la haya y ese no es el caso de los contratos del sector público.* ***La mera defensa de la legalidad, por tanto, no basta para tener por interesado en el procedimiento administrativo a quien lo pretenda*** *y, mucho menos, para conferir legitimación en el proceso contencioso-administrativo".*

Ez dago legitimazio irekirik edozein pertsona edo erakunderi interes orokorrak edo legezkotasuna oro har defendatzeko; aitzitik, dena delako kontratua esleitzeko interes legitimoa eta zuzena egiaztatu behar da, eta kontratazioaren arloko ustezko arau-hauste batek kaltetu duena edo kaltetu dezakeena.

No existe una legitimación abierta a cualquier persona o entidad en defensa de intereses generales o de la legalidad en general, sino que debe acreditarse un interés legítimo y directo en la adjudicación del contrato de que se trate, y que se haya visto o pueda verse perjudicada por una presunta infracción en materia de contratación.

Egindako kontsiderazioekin, legitimazioari buruz ebatzi behar dugu, aurkaratzen den esleipen-

Con las consideraciones ya realizadas, debemos resolver acerca de la legitimación, teniendo en

egintza eta emandako arrazoiak kontuan hartuta, hain zuzen, Foru Aldundiak A-15 errepidea N-1 errepidearekin lotzeko hartutako konponbidearekin desadostasunari dagokionez.

cuenta el acto de adjudicación que se impugna y los motivos esgrimidos, referidos al desacuerdo de quienes recurren con la solución adoptada por la Diputación Foral para la conexión de la carretera A-15 con la N-1.

Interes nagusia da, eta hala eskatzen dute errekurtsoan, foru-administrazioak *Andoainen, N-l eta A-15 errepideen arteko lotura-zatiaren sahiesbidearen konponbidearen alde egitea.*

El interés principal es, y así lo plantean en el recurso, que la administración foral "*apueste por la solución de variante del tramo de conexión de la N1 y la A-15.*

Horretarako, kontratazioaren arloko errekurtso berezia erabiltzen dute, alegatuz kontratuaren adjudikaziodun izan den ABEEa osatzen duten enpresetako bat – SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL – lizitaziotik kanpo geratu behar zela, beren ustez, lehia-abantaila lortu zuelako, lizitazioaren aurreko dokumentu teknikoak egiten parte hartu zuelako. Beraz, enpresa horrek lizitazioan parte hartzea kontratazio-araudiaren aurkakoa dela uste dute, tratu-berdintasuna bermatzearen eta lehia askearen murrizketak saihestearen aldekoa baita, eta espezifikoki arautzen du espezifikazio teknikoak edo prestatzeko dokumentazioa egiten aldez aurretik parte hartu duten enpresa lizitatzaileen kasua (SPKLren 70. artikulua).

Utilizan para ello el recurso especial en materia de contratación alegando que una de las empresas que forman parte de la UTE que ha resultado adjudicataria del contrato - SESTRA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SL – debía haber sido excluida de la licitación porque, a su entender, había obtenido una ventaja competitiva al haber participado en la elaboración de los documentos técnicos previos a la licitación. Consideran, pues, que la participación en la licitación de la referida empresa es contraria a la normativa de contratación, que aboga por garantizar la igualdad de trato y evitar restricciones a la libre concurrencia, y regula específicamente el supuesto de empresas licitadoras que hayan participado previamente en la elaboración de las especificaciones técnicas o documentación preparatoria (art.70 LCSP).

Beraz, errekurtsogileek, esleipena aurkaratzean, lizitazio-prozeduraren legezkotasuna zaintzen dute. Hala ere, ondorioztatu behar dugu ez dela ikusten zuzeneko interesik dutenik kontratua esleitzeko.

Por lo tanto, los recurrentes, al impugnar la adjudicación velan por la legalidad del procedimiento de licitación. Sin embargo, hemos de concluir que no se aprecia que cuenten con un interés directo en la adjudicación del contrato.

Azaldu dugunez, legezkotasuna defendatze hutsak ez du legitimaziorik ematen kontratazio-arloko errekurtso berezi bat jartzeko eta errekurtsogileek ez dute inolako interes zuzenik kontratua esleitzeko.

Ya hemos expuesto que la mera defensa de la legalidad no otorga legitimación para interponer un recurso especial en materia de contratación y las personas recurrentes no ostentan ningún interés directo.

Errekurtsoa baietsiz gero, lizitatzailea baztertu egingo litzateke, eta kontratua bigarren geratu zen lizitatzaileari esleituko litzaioke, eta errekurtsogileek ez lukete abantailarik edo onurarik lortuko, edo kalte zehatz eta ziurrik saihestuko hura

Una eventual estimación del recurso tendría como consecuencia la exclusión de la licitadora en cuestión y la adjudicación del contrato a la licitadora que quedó en segundo lugar, y las recurrentes no obtendrían ventaja o beneficio o la

baiestearen ondorioz, jurisprudentziak interes legitimoa dagoela ulertzeko eskatzen duen bezala.

evitación de un perjuicio concreto y cierto como resultado de la estimación del mismo, tal y como exige la jurisprudencia para entender que existe interés legítimo.

SPKLren 55. artikuluak ezartzen duenez, errekurtsoa ebazteko ardura duen organoak, administrazio-espedientea eskatu eta aztertu ondoren, errekurtsoa ez onartzea erabaki ahal izango du, baldin eta argi eta garbi badago, besteak beste, errekurtsogilearen legitimaziorik eza.

El artículo 55 de la LCSP establece que el órgano encargado de resolver el recurso, tras la reclamación y examen del expediente administrativo, podrá declarar su inadmisión cuando constare de modo inequívoco y manifiesto, entre otros motivos, la falta de legitimación del recurrente.

Horrenbestez, errekurtsoa ez onartzea deklaratu behar dugu, errekurtsogileen legitimazio faltagatik.

Por consiguiente, debemos declarar la inadmisión del recurso por falta de legitimación de las personas recurrentes.

**BOSGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**QUINTO. -** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

## EBAZTEN DU

## ACUERDA

**LEHENA.-** Ez onartzea kontratazioaren arloan jarritako 8/2025 eta 251/2025 bitarteko errekurtso bereziak.

**PRIMERO.-** Inadmitir los recursos especiales en materia de contratación números 8/2025 a 251/2025.

**BIGARRENA.-** Adjudikazio egintzaren etenaldia indargabetzea.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**Donostia, 2025eko irailaren 19a / San Sebastián, 19 de septiembre de 2025.**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA,**

NEKANE ORBEGOZO ZURUTUZA - 72493480X

Digitalki sinatuta norengandik: NEKANE ORBEGOZO ZURUTUZA - 72493480X
Data: 2025.09.19 13:00:50 +02'00'

**Nekane Orbegozo Zurutuza**